

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 28a / 531. zenbakia



**ARATUSTEAK
2003**

FUTBOLA: BERGARA-HONDARRIBIA BIHAR/10 • OSINTXU: SANTU MARTIRIEN AZOKA EGINGO DUTE BIHAR/12



HELBIDE BERRIA

Simon Arrieta 6.

Tel. 943 76 10 71



OLABE

okindegia - gozotegia - frutategia



Matxiategi 4. Tel. 943 76 57 99



Lurradero 2. Tel. 943 76 01 26

Lantokia: Amillaga kalea. Tel. 943 76 72 28. Bergara


ATREBENTZIAEZPADA/ Badago beti gustau baiña lotsagaittik behin be jantzi ez dozun mozorrorik?



ANE PUENTE
10 urte



ANTTON AZKARATE
11 urte



HODEI PÉREZ
7 urte



ERIK GOROSTIAGA
11 urte



DEIANE PÉREZ
11 urte



JOSU ORMAETXE
8 urte

Asko gustatzen jat mozo- rrotzia; aurtan, esate bate- rako, mejikano jantziko naz. Baiña gehixen gusta- zen jatena sevillar jantzie da. Txikittan jantzi nitzan sevillar.

Ikastolatik danok berdin jantziko gara, baiña oin ez naiz izenakin gogoratzen. Eta lagunekin neska jan- tziko naiz, baiña gehixen monstrooz jutia gustatzen jat. Jun izan naiz, gaiñera.

Neri be gustatzen jat mozo- rrotzia, eta errege jantziko naz. Ikastolan be danok ber- din jantziko gara, baiña ez dakit mozorruan izena. Neri gehixen gustatzen jaten jantzixa erregiana da.

Frankenstein jantziko naiz lagunekin, eta ikastolan txorimalo jantziko gara. Gehixen gustatzen jaten mozorruak bilddurra emo- ten dabenak die, mons- truoak-eta.

Gustatzen jat mozorrotzia. Sorginez, ume txikiz edo Kleopatraz mozorrotuko naiz. Ondiokan ez dot era- baki. Gehixen gustatzen jaten mozorrua Kleopatra- na da.

Asko gustatzen jat mozo- rrotzia. Ikastolan mozo- rrotu egingo gara: txori- maloz mozorrotuko gara danok. Neri danerako mozorruak gustatzen jat, eta gehixen, ez dakit zein.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BEROGAILUA PIZTU, BEHINTZAT Novedades zinemaz kexatu da irakurle bat. Aretorearen egoera benetan kaskarra dela adie- razi duen arren, bere kexua beste bat da: haren esanetan, kaskarta- sun hori guztia eramangarriagoa izango litzateke berogailuak behar direnean piztuko balira. Eguenetan, zineklubean normalena hotza pasatzea dela dio, eta hala ez dagoela filma gustura ikusterik. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /11

KULTURA /12

Mozorroa jantzeko garaia

Gaur hasi eta martitzenera bitartean Aratus- teak ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte.

Kadete nesken eskubaloia

Kadete mailako nesken eskubaloi taldeak denboral- diko hirugarren garaipena erdietsi zuen.

Osintxun, Santu Martiriak

Bihar, zapatua, Santu Martirien Eguna ospatuko dute Osintxun. Ekitaldi ugari egongo da.

ASTEKODATUA

46

PREFERENTEKO TALDEAK EGINDAKO GOLAK

Bergara KEko preferente maila- ko futbol taldeak 46 gol egin ditu eta, Pasajes liderraren atzetik, gol gehien egin dituen taldea da. Pasaiatarrek 54 gol sartu dituz- te. Bergara 4. da sailkapenean.

BESTEKEESANA

“Gaur egun, erretira- tuen etxeak barrura begira daude, eta gu- re helburua da kide guztiak kanpora begi- ra jartzea. Horretarako erretiratu boluntario taldea eratuko dugu, belaunaldien arteko harremanak bultzatuko ditugu, erretiratu- en etxeetan teknologia berriak sartuko ditugu, osasun fisiko, mental eta soziala prebenitzeko ekintzak anto- latuko ditugu eta nagusiendako es- kolak antolatuko ditugu, besteak beste. Horren helburua bikoitza da. Batetik, beste adin bateko pertso- en kontaktuan jartzean, belaunal- dien arteko harremanak ezarri nahi ditugu. Bestetik, erretiratuak lortu- ko du gizartearen parte hartzea, bere burua probetxugarri dela ikusiz eta bere bizitzari zentzua emanez”.

TOMASA ZABALETA / Gipuzkoako Pertsona Nagusien Kontseiluko lehendakariordea
‘Deia’/03-02-22

BERAIEKDIÑOÈ/ Jose Angel Mikeo



Nik ez dut izotzezko bihotzik

Minduta nago, sumin- duta eta saminduta. Azken zazpi egun- tan min izugarria egin didate (digute): *Egunkaria* itxi didate. Bere izena, gurea, neurea, euskararena lurretik zehar narrazean ibili dute eta garbi eta garden zena lorrin- tzea lortzen ari dira.

Pertsona zuzen, langile eta euskal- tzaleak (hau bai be- katu ikaragarria) kartzelarako bidean edo ia beste mundu- rako bidean jarri di- tuzte. Horietako bat- zuk ezagutzen ditut eta euren zuzentasu- naren duda izpirik ere ez dut. Eta sortu zaidan sa- minak bihotz guztia hartu dit, izan ere nik ez dut eta “izotze- ko bihotzik”. Nire bihotza in- justizia edonoren aurrean min- tzen da, izan hemen edo mun- duaren beste aldean, hilketa izan edo zabarkeri hau izan eta, dagoeneko, bihotzeko mina burua ere sumintzen hasi zait.

Egia esango dizuet, minduta nabil isilik dauden guztiakin, “Haizearen orrazian” kontren- tratu beharko ziren eta ezer

egin ez duten kazetariekin, detenitu edo *Egunkaria*-ri inozentzia eskubidea ukatzen dioten politikoeekin (harrizko bihotzak, besteengan izotzezko- ak ikusi eta norberak negar malko bat ere isurtzen ez duten horiekin), euskal kulturaren mesedetan erabaki hau hartu eta euren kartel batean ere euskara erabiltzen ez duten horiekin, bideko seinaletan euskal izenak ezabatzen ari den gobernuarekin, larunbateko mani- festazioan beste manifestari batzuen aurkako deiadarrak egin zituztenekin...

eta edozer gauza egiteko aitzakia den ETArekin.

Eta nik, ez dut pazifista-ez- biolento zertifikaturik behar, baina erruduntzat naukate eus- kalduna izateagatik. Ezin dut injustiziarik onartu eta egiten dutena eginda ere ez dute go- rrororik nire bihotzean sortu- ko. Baina tontoarena egiteko ez nago prest: behingoz batu gaitzen eta erantzun sendoa eman, zatiketarik gabe. Gure izaera dago jadanik jokoan.

“Behingoz batu gaitzen eta erantzun sendoa eman, zatiketarik gabe. Gure izaera dago jadanik jokoan”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel Elkoroberebizar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 28**
PUY, Barrenkalea 25... 943 76 16 87
- ZAPATUA, 1**
GUALLAR, San Antonio 5... 943 76 11 05
- DOMEKA, 2**
GUALLAR, San Antonio 5... 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 3**
ESTELLA, Matxiategi 5... 943 76 19 63
- MARTITZENA, 4**
MOZOS, San Pedro 4... 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 5**
CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74
- EGUENA, 6**
PUY, Barrenkalea 25... 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIAK**
- Anbulatorioa (txanda) ... 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa ... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa ... 943 76 62 46
- Ertzaintza ... 943 76 53 40
- Osasun etxea ... 943 76 24 40
- Asepeyo ... 943 76 16 43
- Pakea ... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ... 943 76 62 23
- Odol emaeleak ... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ... 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak ... 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea ... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ... 943 77 91 32
- Igerilekuak ... 943 76 20 51
- Kultura etxea ... 943 77 91 58
- Liburutegia ... 943 77 91 62
- Kiroldegia ... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ... 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia ... 943 76 14 92
- Erregistroa ... 943 76 13 15
- Jardun ... 943 76 36 61
- Idolaz ... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara ... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. ... 943 76 62 71
- Postetxea ... 943 76 26 85
- Bedelkar ... 943 76 04 68
- Akulu AEK ... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ... 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|----------------------|
| San Pedro | Labegarieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta | Zapatuak: 20:00. |
| lanegunak: | Angiozar |
| 19:00. | Domekak: 11:30. |
| Sierbak | Moja Zaharrak |
| Lanegunak: 19:15. | Lanegunak: 09:00. |
| Zapatuak: | Zapatuak: 11:00. |
| 19:00. | Mizpirualde |
| Domekak: | Lanegunak: 11:45. |
| 11:30, 13:00. | Zapatuak: 17:30. |
| Osintxu | Antzuola |
| Domekak: 12:30. | Domekak: |
| Zapatuak: 19:00. | 09:00, 11:30. |
| Elosu | Zapatuak eta |
| Domekak: 10:30. | lanegunak: 19:30. |
| Ubera | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |
| San Juan | Elgeta |
| Domekak: 11:00. | Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi | Zapatuak: 19:30. |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |
| URTE-MEZAK | |
| Santa Marina (Sierbetan) | |
| Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean. | |
| San Pedro | |
| Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean. | |

OHARRAK

JOSU CIFUENTESEN ALDEKO ZOZKETA

Josu Cifuentes gaztetxoak jaso behar duen tratamendua ordaintzen laguntzeko, haren familiak eta lagunek hiru saski zozketatuko dituzte. Txartelak herriko tabernetan daude salgai. Era berean, hiru kontu ireki dituzte, Euskadiko Kutxan, Caja Rural de Navarran eta Banco Guipuzcoanon.

ODOL ATERATZEA

Hurrengo odol ateratzea martxoaren 19an izango da. Ohiko moduan, Seminarioko lokalean egingo dute, 18:30ean hasita.

RACING-REALA IKUSTERA JOATEKO IRTEERA

Martxoaren 16an Santanderrren Racing-Reala partidua ikustera joateko irteera antolatu dute Realzale batzuek. 10:00etan irtingo dira, frontoitik. Bidaiaren prezioa 12 euro da (sarrera aparte). Izenematea, Erreki erretegiaren, 943 76 38 51 telefono zenbakian.

IKASTAROAK KZGUNEAN

KZGuneak herritar guztiendako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatu dituzte. Argibideak: 943 76 73 24.

JARDUNEN AGENDA

INAUTERI JAIA ARRIZURIN ETA ZABALOTEGIN, JARDUNEKIN

Txapligu taldearen Inauteri jaia egongo da bihar, zapatua, Arrizurin, 16:00etan. Era berean, 12 eta 16 urte artekoek jaia izango dute Zabalotegin, Udal Euskaltegian, 16:00etan. Domekan, berriz, Sukaldaritza ikastaroa egongo da Arrizurin, 16:00etan.

URBANOEN ORDUTEGIA


San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Artzamendiko etxebizitza itunduen zozketa

Artzamendi kaleko 63 etxebizitza kontzertatuak zozketatu zituzten 1993ko otsailaren 25ean Zabalotegiko aretoan. Alde batetik, babes ofizialeko 40 etxebizitza zozketatu zituzten eta, bestetik, etxebizitza sozialak: 28, hain zuzen ere. Etxebizitzak handik 22 hilabetera bukatu zituzten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Kauskaria”



Haginkada, koskada.
—Ze sagar da?
Emongostazu kauskara bat?
—Kauskara dezentia ein ddotsa zuen Pitxirriok.

ASTEKO FILMAK

‘OTRA TERAPIA PELIGROSA’

ZUZENDARIA: HAROLD RAMIS. AKTOREAK: ROBERT DE NIRO, BILLY CRISTAL.

HARIA. Paul Vitti mafiako burua kartzelatik irtengo da, baldintza bakar batekin: bere psikiatraren tutoretzapean geldituko da.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●



‘LA LUZ PRODIGIOSA’

ZUZENDARIA: MIGUEL HERMOSO. AKTOREAK: ALFREDO LANDA, NINO MANFREDI.

HARIA. Berrogei urteren ostean Joaquin Granadara itzuliko da 1936an utzi zuen hiria, eta fusilamendu batetik bizirik ateratako Galapago izeneko gizon batekin gogoratuko da. Gizon hori eskalea da eta, berez, Federico Garcia Lorca den susmoa izango du. Fernando Mariasen eleberrian oinarritutako filma.

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean (martxoaren 6), 20:00etan. Zinekluba.

PUNTAUZIOA: ● ● ● ● ●

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 BERGARA 943 76 20 49

Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53

Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32 BERGARA Tf. 943 76 44 95

ARATUSTEAK/ Jaiotan kalean giro hoberena jartzen duen taldeari afari-merienda emango dio Bedelkar dendarien elkarteak

Gaur hasi eta martitzenera arte, Aratuste egitarau zabala ume eta nagusiagoendako

MONIKA BELASTEGI

Aratusteetara iritsi gara. Gaur hasi eta martitzenera arte hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dugu Aratuste jai hauetan. Antzerkia, musika, pailazoak... Ekitaldi ugari antolatuta dituzte jaiak alaitzeko. Dena dela, garrantzitsuena mozorroak izango dira.

Aratuste jaiak hasteko kontzertua egongo da gaur, egubakoitza, 22:30ean, Udal Pilotalekuan. Udal Musika Bandak, Bergararako Orkestra Sinfonikoak eta Xamatx dantza taldeak hartuko dute parte. Emanaldiak bi atal izango ditu: lehenengoan, bandak eta orkestrak bakarkako lanean jardungo dute; bigarren, biek elkarrekin jardungo dute eta *Eraztunen jauna* filmeko soinu-banda egongo dute. Gainera, bigarren atal horretan Xamatx dantza taldeko kideek dantza egongo dute eta Nagore Sanzek abestu egongo du. Sarrerak hiru euro balio du eta batuko den dirua Josu Cifuentes umeari laguntzeko izatea erabaki du Udalak. Sarrera aurrez erosi ez dutenendako leihatila zabalduko dute, 21:30ean, eta emanaldirako atea, berri, 22:00etan.

Horrez gain, lehenengo mozorroak ikusteko aukera ere izan dugu gaur arratsaldean: Aranzadi Ikastolako umeak kometaz eta euskal Inauterietako pertsonaiez mozorrotuta ibili dira kalez kale. Mariaren Lagundikoek ere egin dute desfilea, barazki eta txorimalo jantzita. San Martin Ikastetxearen kasuan, martitzenean ibiliko dira kalean mozorrotuta; egiptiarrez eta Erdi Aroko eta etorkizuneko gizakiez mozorrotuta dira.

ZAPATUAN, MUSIKA ETA DANTZA IZANGO DIRA NAGUSI

Aratuste giroa zapatuan hasiko da nagusitzen. Mozorroak ere orduan jantziko dituzte euren jantziak eta pailazo, mexikar, indiar..., denetarik ibiliko da herriko kaleetan egun horretan. Eta hori guztia are gehiago alaitzeko, hainbat ekitaldi izango dira arratsaldean zein gauez.

16:30ean, Hotzmuga taldeak *Klaketa* izeneko umeendako kale antzerkia egongo du San Martin plazan. Zinemaren gaineko antzerki lana da: zinema zuzendari bat, *glamour* handiko aktore famatu bat eta kameralari bat indiarren eta behizainen film bat filmatzera etorriko dira herrira. Lanean dihardutela bi udaltzain hurbilduko zaizkie, filmean agertu nahi dutelako. Baina borondate ona duten arren, guztia nahastuko dute. Hori horrela, filmaren zuzendariak San Martin plazara hurbilduko diren neska-mutiko



Denetarik mozorroak ikusteko aukera egongo da: pailazoak, mexikarrak, suhiltzaileak... eta erizainik ere ez da faltako.

ARTXIBOA

Aratusteetako kontzertua gaur egongo dute, 22:30ean, Udal Pilotalekuan

Sardina martitzenean ehortziko dute, 21:00etan, San Martin plazan

Giroa gehien alaitzen duen taldeari afari-merienda emango dio Bedelkarrek

Takolo, Pirritx eta Porrotx, domekan

Katxiporreta da Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunen azken ikuskizuna, eta hori da, hain justu, Aratusteetako domekan egongo dutena Udal Pilotalekuan. Gainera, gaztetxoaren artean duten arrakasta ikusita, bi emanaldi egongo dituzte: bata, 16:30ean eta bestea, 18:30ean. Iaz ere herrian izan genituen Takolo, Pirritx eta Porrotx, eta neska-mutiko ugari joan ziren pailazoak ikustera. Orduan ere bi emanaldi egin zituzten Bergaran, Udal Pilotalekuan.

Domekan egongo duten ikuskizuna, *Katxiporreta*, hiru pailazoen hamaikagarren eta azken diskoaren izena da. Iaz kaleratu zuten, pailazoen 15. urteurrena ospatzeko, eta diskoa izen bereko ikuskizunarekin lagundu dute. Hamabost urte horietan hainbat abesti, pertsonaia eta esketx sortu dituzte. Hori horrela, horietatik pertsonaia maitatuenak eta abesti alaiak, dantzatzekoak, parrandakoak, lotarakoak... batu dituzte eta *Katxiporreta* lana egin dute, gaztetxoaren gozamenarako.

Txartelak dagoeneko salgai daude eta kultura etxean eskura daitezke, hiru euroren truke.



guztien laguntza beharko du nahasmena bideratzeko.

Antzerki gain, 17:30ean, Bergarako Konpartsako erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira egongo da, Bergarako Kobok dultzaineroek lagunduta. Konpartsak ibilbide hau egongo du: San Martin plaza-Bidekurutzeta-San Pedro-Artekalea-Arriaga-Barrenkalea-San Martin plaza.

Konpartsaren kalejiraren ondoren, Xamatx dantza taldeak erakustaldia egongo du. 19:00etan, kalejira egongo dute herriko kaleetan barrena, baita hainbat gunetan dantzak eskaini ere. Eta Aratuste-zapatua amaitzeko, bi dantzaldi egongo dira, 23:30ean: batetik, Hator musika taldeak Fraiskozuri plazan jardungo du eta, bestetik, Bryganthya folk taldeak, San Martin plazan.

Aratuste-domekan ere izango da ikuskizunik: batetik, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira. Bi emanaldi egongo dituzte, biak ere Udal Pilotalekuan: bata, 16:30ean eta bestea, 18:30ean. Hiru pailazoen *Katxiporreta* ikuskizuna egongo dute, pilotalekura hurbilduko diren neska-mutikoen gozamenarako.

Horrez gainera, musika eta dantza nahiago dutenendako, Luhartz musika taldeak emanaldia egongo du San Martin plazan, 18:00etan.

MARTITZENEAN, SARDINA ERRE ETA JAI EI AGUR

Aratuste-martitzenean jarraituko dute jaiak. 16:30ean, Musika Eskolako txarangaren kalejira izango da eta horren ondoren, 17:00etan, Zirko Ttipia taldeak *Txalozirkus* kale antzerkia egongo du, umeendako, Muni-be plazan.

Antzerki gain, arratsaldean musika ere izango da San Martin plazan. 18:30etik 21:30era bitartean Gaubela dantza taldearekin dantza eta salto egiteko aukera egongo da.

Sardinaren ehortzeari dago-kionez, 21:00etan izango da. Kultura etxetik irtengo da sardina eta bertan elkartzeri gonbidatzen ditu herritar guztiak Jai batzordeak. Hurbiltzen direnei, gainera, kandelak banatuko dizkiete. Sardinak honako ibilbidea egongo du: kultura etxea-Barrenkalea-San Martin plaza-Bidekurutzeta-San Pedro-Komenio kalea-San Martin plaza. Hala, San Martin plazan erreko dute. Aurten ere Mikel Ibartzabal panpinaegileak egin du sardina.

TXOKOLATE-JANA BEDELKARREKIN

Horrekin guztiarekin batera, Bedelkar dendarien elkarteak 150 euroko afari-merienda emango dio Aratusteetan kalea gehien animatzen duen taldeari.

LANA/ Enplegu egonkor horiek lanaldi osokoak izan behar dute eta 2002an sortuak; enpresak, berriz, 20 langile baino gutxiago izan beharko ditu

Dirulaguntzak emango dizkie Udalak enpresei, enplegu egonkorra sortzeagatik

MONIKA BELASTEGI

Enplegu egonkorra sortzeagatik enpresendako dirulaguntzak onartu ditu Udalak. Laguntza horiek eskuratzeko hainbat baldintza bete behar dituzte lantegiek; besteak beste, Bergaran kokatuta egotea. Eskaerak egiteko epea zabalik dago enpresei.

Lehenengo aldia da Bergarako Udalak horrelako laguntzak ematen dituenen. 24.040 euro inguru izendatu dituzte horretarako, eta laguntza horiek eskuratzeko baldintzak otsailaren erdi aldera onartu zituen Gobernu batzordeak.

Laguntza berri horiek ondorengo baldintzak betetzen dituzten enpresendako izango dira: alde batetik, legez araututako 20 langile baino gutxiagoko enpresa izan behar da; beste aldetik, Bergaran kokatuta egon behar da; eta, hirugarrenik, gutxienez enplegu egonkor bat sortu duen enpresa izan beharko da laguntza eskuratzeko.

Enplegu egonkor hori, gainera, lanaldi osokoa izan beharko da eta 2002 urtean sortutakoa. Bestalde, enplegu egonkortzat hartuko da kooperatibaren behin betiko bazkide-langile berriei dagokiena edo besteren konturako langileen kasuan kontratazio mugagabeari dagokiona, egun osorako.



Enpresak Bergaran egon behar du eta 20 langile baino gutxiago izan, besteak beste, laguntzak eskatzeko.

SALBUESPENAK

Hala eta guztiz ere, aipatutako baldintza horiek bete arren, ez dute dirulaguntzarik jasotzeko aukerarik izango honako enpresek: bezero bakar bat enpresaren fakturazioaren %90 denean; administrazioarekin daukaten kontratuen ondorioz sortutako fak-

Eskabideak Udalean aurkeztu beharko dira martxoaren 28a baino lehen

turazioa fakturazio orokorraren %70 edo gehiago denean; partizipazio publikoa duten enpresek; eta enpresaren kapital sozialaren jabetza %50etik gora laguntza horiek eskuratzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen ez dituzten beste enpresa batzuen denean.

GEHIENEZ HIRU KONTRATU

Udalak 24.040 euro izendatu ditu laguntza horiendako. Hala eta guztiz ere, gehienez 3.005 euro emango dira sortutako enpresa egonkor bakoitzeko. Gainera, lehentasuna emango zaio ondorengo egoeraren batean dauden pertsonak kontratatu izanar iraupen luzeke langabetua, emakumea, 45 urtetik gorakoa, elberritua, Gizarteratzeko Gutxienezko Dirulaguntzen onuraduna edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuraduna. Horrez gain, deialdi berean gehienez ere hiru lanpostu egonkor sortzeagatik dagozkion laguntzak emango zaizkio enpresa bakoitzari.

Egoera berean aurkitzen den eskaera bat baino gehiago baldin, eta guztiendako partida ekonomikorik ez, esleipena zozketabidez egingo luke Udalak. Bestalde, laguntza jasoz gero, jasotzen den unetik hasita hiru urte jarraian jardun beharko du dirulaguntza ematerakoan zegoen lan taldeak. Halaber, diruz lagundutako kontratua ere hiru urte mantendu beharko da indarrean.

ESKAERAK EGITEKO EPEA MARTXOAREN 28RA BITARTEAN

Eskabideak egiteko epea aste honetan zabaldu dute, eta Udalak Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, asteleheneratik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara. Epea martxoaren 28an amaituko da.

Algodonerako zubia eta trenbide zati bat konponduko ditu Udalak

MONIKA BELASTEGI

Algodonerako zubia eta trenbide zaharreko zati bat konpondzeko proiektua eta lanak esleitzeko baldintzak onartu zituen udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran. Zubian hesi berria jarriko dute eta trenbidearen zorua txukundu egingo dute.

Alderdi guztien oniritziarekin onartu zituen udalbatzak proiektua eta lanak esleitzeko baldintzak. Interesa duten enpresek martxoaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren proposamenak, eta aurrekontua 48.700 euro ingurukoa da.

Lanak Ertzain etxean hasi eta Algodonerako tunel hasiera arteko zatia hartuko dute. Zorua egokitu eta asfalto gorria botako dute. Horrela, aurrez egindako lanei jarraipena emango diete. Zubiari dagokionez, argi han-



Zubiaren hesia aldatu egingo dute eta berria jarri; oraingoa baino seguruagoa.

diagoa jarriko dute, baita hesi berria ere, orain dagoena baino seguruagoa. Udaleko iturrien esanetan, lanok ez dira sakonegiak izango, urte batzuetara erabile-

ratik kanpo geratuko delako zubia: Algodonerako orubean egin nahi dituzten etxebizitzak eta tranbiaren proiektuetan zubi berria egitea jasotzen da.

LABUR

Gazte Txartela egiteko inprimakia KZGunean eskura daiteke, Internet erabilia

Gazte Txartela eskuratzeko erraztasunak ematen ditu KZGuneak. Txartela lortzeko Euskadiko Kutxan diru sarrera egin behar da; eta KZGuneak diru sarrera hori egiteko beharrezko den inprimakia Internet bidez lortzeko aukera ematen du.

Inprimaki hori eskuratzeko nortasun agiriko datuak honako helbidean sartu behar dira: www.gazteaukera.net.

Martitzenean, hainbat teila eta zuhaitz erortu ziren, haize bortitzaren eraginez

Martitzenean ibili zen haizeak hainbat teila bota zituen Mugatzen eta Osintxuko etxe batzuetan. Ibarra kalean, berriz, kanpaloi bat askatu zuen, eta Maduran antena kolektibo bat. Horrez gain, hainbat zuhaitz ere bota zituen haizeak: San Juanen hainbat albizarfre bota zituen eta baserri bide batzuetan pinuak. Kalte pertsonalik, baina, ez da izan.

Iñigo Martínez 'Memin'-en oroimenezko mendi irteera antolatu dute haren lagunek

Iñigo Martínez Memin zenaren oroimenezko mendi ibilaldia antolatu dute haren lagunek bihar, zapatua. Irukurutzetara igoko dira eta 09:00etan abiatuko dira, San Martin plazatik. Eta mendi irteeraren ondoren bazkaria egongo dela adierazi dute. Herritarren parte hartzera gonbidatu dituzte.

Bihar, zapatua, zabalduko dute Antzuolara aldeko bidea

E.M.

Udaleko iturrien arabera, bihar, zapatua, zabalduko dute San Antoniotik Antzuolara aldeko bidea. Otsailaren 1a ezker dago itxita. Aste honetan bertan amaitu dituzte Bonbuluko etxea botatzeko lanak.

okindegi zaharraren eraikin zatia errepidera erori zenetik itxita egon da errepidea, joan den otsailaren 1a ezker, hain zuzen. Orduetik hona ekialdeko saihesbidea erabili behar izan dute auto gidariek. Antzuolarako herri irteerak zein saihesbideak zirkulazio handia izaten dute egunero.

Bonbuluko okindegi zaharreko eraikina botatzeko lanak astelehenean hasi zituzten, eta Udaleko iturrien esanetan, ziurrenik, bihar, zapatua, zabalduko dute Antzuolara aldeko herri irteera. Bonbuluko okindegi zaharraz gain, Urteagako 22, 24 eta 26 zenbakiak botatzeko lanak ere egin dituzte astean barrena. Atzo eta gaur bitartean obra-hondakinak erretiratzekoak ziren eta, hortaz, bihar berriro ere errepidea zirkulazioari zabaltzekoak ziren. Jakingo duzue, Bonbuluko

UDALBATZAREN ERABAKIA

Otsailaren 10eko osoko bilkuran, udalbatzak Bonbuluko okindegi zaharra eta Urteagako 22, 24 eta 26 zenbakiak botatzeko baldintzak onartu zituen. Udala egin da eraisketaren kargu eta trukean orubeak bere esku geratu dira. Udalak Mariezkurrena enpresari esleitu zizkion eraisketa lanak, 64.000 eurotan. Eraisketa lanak amaitu eta gero, geratzen den orubearen eta Antzuola errekararen artean hesi bat egitea jasotzen da egitasmoan.



ARANZADI IKASTOLA

Egunotan hainbat mobilizazio egin dira Egunkariaren alde. Irudian Aranzadi ikastolako langileek egindako elkarretaraztea.

EGUNKARIA/ Hainbat mobilizazio egin dituzte herrian, gertatutakoa gaitzesteko

'Egunkaria'-ren aldeko mozioa onartu du udalbatzak

MONIKA BELASTEGI

Astelehenean izandako osoko bilkuran, *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko mozioa onartu zuen udalbatzak. EAJ-EAren eta Bergarako Sozialista Abertzaleen aldeko botoekin egin zuen aurrera mozioak; PSE-EE alderdiak, berriz, mozioaren aurka bozkatu zuen.

Udalbatzak onartutako mozioak bost puntu ditu: batetik, irmoki salatu du *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurka egindako operazio polizial-judiziala, "oinarrizko giza eskubideak, adierazpen askatasuna eta informazio eskubidea errotik urratuak izan direlako".

Bestetik, Espainiako gobernuaren izaera totalitarioa salatu dute, eta "bultzada politiko antidemokratikoetan oinarritutako hau bezalako jarduerak" gogor gaitzetsi ditu udalbatzak.

Horrez gain, Espainiako Estatuak "berezkoa duen gezurra oinarri hartuta, euskara eta euskalgintzan diharduen oro indarkeriarekin nahastu nahi izatea, euskara eta euskal nortasunaren ikur guztiak etengabeko susmopean jartzea eta abertzaletasunaren kriminalizazio kanpainan emandako urrats kezagarri eta arriskutsuak" ere salatu ditu.

Bestalde, elkartasuna adierazi die "operazio polizi-juridiko honetan atxilotutakoei"; kezka azaldu du Guardia Zibilararen eskuetan jasan dezaketen tratuak, eta berehalako askatasuna eskatu du. Era berean, *Euskal-*

dunon Egunkaria-ren arduradunei, langileei eta irakurleei elkartasuna adierazi die.

Azkenik, *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurkako eraso amaitu eta berehala irekitzea exijitu dio Espainiako gobernuari. Herri-tarrei antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko dei ere egin die udalbatzak.

FERMIN LAZKANO BERGARARRA, ATXILOTUETAKO BAT

Atxilotuei dagokienez, Bergarako Sozialista Abertzaleek hamar atxilotuetako bat bergararra dela ekarri zuten gogora osoko bilkuran: Fermin Lazkano, hain justu ere.

Lazkano *Euskaldunon Egunkaria*-ko gerentea izan zen 90eko


hamarkada hasieran, eta gaur egun, informatika zerbitzuak eskaintzen dituen Plazagunea enpresako arduraduna da.

Otamendi, Gomila eta Goiarekin batera, baldintzapean aske utzi du epaileak. Hori horrela, 12.000 euroko bermea ordaindu ondoren ateratzekoa zen Soto del Real espetxetik eguztenean. Gainerako atxilotuak bezala bost egun inkomunikatuta izan dute Lazkano Soto del Real espetxean, eta astelehenean deklaratu zuen Juan del Olmo epailearen aurrean. Atxilotuetako batzuek torturak salatu dituzte.

HAINBAT MOBILIZAZIO ETA HERRI BATZORDEA OSATZEKO BATZARRA

Egunkaria itxi eta berehala izan zuen erantzuna gertakariak herrian. Hainbat mobilizazio egin dituzte eta Donostiako manifestaziora, esate baterako, lau autobus joan ziren.

Beste batzuen artean, Aranzadi Ikastolako langileek elkarretaratzea egin zuten astelehen eguerdian. Horrez gain, hainbat batzar informatibo egin dituzte. Horrekin batera, eguen iluntzean, *Euskaldunon Egunkaria*-ren alde jardungo duen herri batzordea antolatzeko batzarra ere izan zen gaztetxean. Helburua da *Euskaldunon Egunkaria*-ri laguntzeko lantaldea osatzea eta ekimenak lankidetzan egitea. Beste gauza batzuen artean, *Egunero* egunkariaren harpidetzaz arduratuko den lantaldea eratzeko asmoa dagoela aurreratu zuten herri batzordeko bultzatzaileek.



MONIKA BELASTEGI

Astelehenean hasi ziren eraikinak botatzen.



Hasi dira Martoko auzoa konpontzen

Aurreko egubakoitzean hasi ziren Martoko auzoa konpontzen, erreka aldera ematen duen auzunea, hain justu ere. Lan horiei ekiteko Euskaltelek zuntz optikoa sartzeko zain egon da Udala. Auzunea asfaltatu egingo dute, argiteria berria jarriko dute eta lorategiak konpontzeaz gainera, ureztatzeko sistema berria ere jarriko diote.

'Euskaldunon Egunkaria'-ren aurka egindako operazioa gogor salatu du Udalak

'Egunkaria'-ren aldeko ekimenak lankidetzan egiteko herri batzordea eratzen dihardute



UDAL EUSKALTEGIKO IKASLEAK SAGARDOTEGIAN

Bergarako Udal Euskaltegi-ko ikasleek sagardotegira irteera egin zuten joan den egubakoitzean, otsailaren 21ean. Tolosako Aldaba Txiki auzoko Isastegi sagardotegian izan ziren eta, honelakoetan gertatzen den moduan, primerako giroa izan zuten. Soinu jotzaileen eta pandero jotzaileen laguntza ere izan zuten. Primeran afaldu, txotx egin, lagunarteko giroaz gozatu eta buelta Bergarara. Guztira, 42 lagun izan ziren, euskaltegian hainbat mailatan dihardutenak. Hilario Azkargorta tartean zen, eta, ohikoa duenez, argazki-kamera eraman zuen aldean. Hala bere laguneri alboko argazkia atera zien. Sagardo upelen ondoren jarri eta *klik!* Hor duzue taldeko argazki dotorea.



ESERLEKUAK IRIZAR JAUREGIKO LORATEGIAN

Duela hilabete batzuk txukuntze lanak egin zituzten Irizar jauregiko lorategian. Hala ere, batek baino gehiagok faltan sumatzen zituen eserlekuak. BERRIGARAN ere jaso genuen kexaren bat edo beste horren gainean. Kontuak kontu, Udaleko langileek eserleku berriak jarri dituzte. Egurrezko sei eserleku daude eta egunotan, egia esan, ez da jende askorik ibili. Udaberri aldean, eguraldia hobetzean, beste kontu bat izango da...



PALMONDOA UDABERRIRAKO ZABALIK

Maiatzean urtebete beteko da Iburgaraiko palmondoa jarri zutenetik. Oraindik ere zabaltzeke dago eta kalean jendeak komentatzen du ea noiz zabalduko ote duten. Antza, gutxienez urtebete behar du palmondoa susturriak ondo finkatzeko, eta, hortaz, maiatza-ekaina aldera zabalduko dela jakin dugu. Orduan, are ederrago ikusiko dugu Iburgaraiko palmondoa.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

MINGAINARITIRAKA



Jon Unamuno

UDALEKO EUSKARA ZERBITZUKO BEKADUNA

Jon Unamunok (24 urte) Hizkuntzen Psikopedagogia ikasten dihardu HUHEZIn, Eskoriatzan, arratsalde. Goizetan, berriz, Udaleko Euskara Zerbitzuan lan egiten du, bekadun. Amateur mailako txirrindulari izandakoa da.

- Txikitan zer izan nahi zenuen?
Realeko jokalaria, López Ufarteren modukoa...
- Euskara Zerbitzuan diharduzu. Gauza onena eta txarra?
Dihardudan esparruko gauza asko ikasteko aukera dudala; txarra, denbora osoa ordenagailu aurrean ematen dudala.
- Txirrindulari ibili zineneko oroitzapenik onena?
Egin ditudan lagunak eta ezagututako tokiak. Horrenbeste jende ezagutzeak bizitzaren beste ikuspegi bat eman zidan.
- Badaukazu penarik txirrindulari garaietatik?
Euskadiko Erlojukontrako Txapelketa 7 segundogatik ez irabaztea. Lagunak etorri ziren, pena izan zen. Astarlozak irabazi zidan.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?
Zinemara joan, areto futboleko jokatu, lagunekin egon...
- Egunkarian zer irakurtzen duzu lehenbizi?
Jeneralean atzeko orrialdetik hasten naiz egunkaria irakurtzen.
- Liburu bat/ Film bat/Musika talde edo kantari bat?
1984 (George Orwell)/El pez gordo/Iggy Pop.
- Egondako azken kontzertua?
Loquillok Gabonetan Bergaran eskainitakoan.
- Telebistako programa bat? Ikusi ezin duzun beste bat?
Los Simpson. La isla de los famosos, berriz, ezin dut jasan.
- Janari bat? Eta edari bat?
Odolostea eta babarrun gorriak eta txokolatzeko irabiatua.
- Inauterietan mozorrotzeko asmorik?
Bai, koadrilan irtengo gara. Ezin dizut mozorroa esan...
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?
Ondokoekin eta daukadanarekin gustura egotea.
- Zure bertute bat? Eta akats bat?
Lagunen lagun ona naiz; akatsa, konstantziarik eza, beharbada.
- Neska bati zeri erreparatzen diozu lehenbizi?
Ileri.
- Euskal Herriko toki bat? Urtaro bat?
Hondarribia. Uda gustatzen zait.
- Egindako bidaiarik onena?
Joan den udan lagunekin Galiziara egindakoa. Oso ondo ibili ginen.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

IZASKUN ARTZINIEGA

25 URTE / INGENIARIA / DUBLINEN BIZI DA

“Hiri txikia izan arren, batzuetan hiri kaotiko eta zaratatsu bilakatzen da Dublin”

EDU MENDIBIL

A rrasateko Eskola Politeknikoan Produkzio Ingeniaritza ikasi eta gero, Grenoblera (Frantzia) joan zen Izaskun ikasketak osatzera. Industria Ingeniaritza ikasi zuen han. Frantziara alde egin aurretik, frantsesez ezer gutxi zekiela diosku Izaskunek: “Horrek ez ninduen atzera bota eta Bergarako akademia baten hartu nituen frantses eskolak hilabete batzuetan. Egia esateko, primerako irakaslea izan nuen, Edurne, eta hark izugarri lagundu zidan”. Etxetik alde egitea kostatu egin zitzaion, baina esperientzia guztiz aberasgarria gertatu zaiola azpimarratzen du: “Ez naiz damutzen. Bai pertsonalki, baita profesionalki ere esperientzia mundiala izan da. Hasiara gogorra izaten da, komunikatzeko arazoak daudelako, kultura ezberdina delako, arazoak konpontzeko gurasoen laguntzarik ez dagoelako... Baina gauza asko ikasten dira eta egun batetik bestera zure burua independente sentitzen duzu, nahi duzun guztia egiteko eta lortzeko gauza izango bazina bezala”.

Grenoblen Schneider Electric-eko erosketa departamentuan jardun zuen lanean eta 2002ko azaroa ezker Dublinen dago, Xerox-eko departamentu teknikoan lanean. Hala ere, lanez aldatzeko asmoarekin dabilela adierazi digu. Hasieran Dublin hegoaldean bizi zen eta orain dela gutxi hiri erdialdean hartu dute etxebizitza.

“Irlandarrak oso jatorrak dira eta lagunartean parranda egitea asko gustatzen zaie”

Etxean lau lagun dira: bi madrildar, neska italiar bat eta Izaskun bera. Aspalditik ezagutzen dute elkar eta oso giro ona daukate. Grenobleko esperientzia bukatu ondoren, nagusiki ingelesa hobetearren joan zen Dublinera. Irlandarren gainean zera diosku: “Hemen esaten duten moduan, oso friendly dira, jatorrak benetan. Ez dute zerikusirik ingelesekin. Euskaldunok moduan, irlandarrak ere parranda onak egiten dituzte eta lagunartean, pubetan, lasai-lasai garagardo pintak edatea izugarri gustatzen zaie. Aste bukaeretan goiz irte ten dira eta sekulako mozkorrak harrapatzen dituzte, gizonek eta

emakumeek. Orduan, askoz ere alaiagoak eta berritsuagoak dira oraindik... Erraza da irlandarrekin berba egiten hastea, baina, bestalde, lagunak egitea ez da hain erraza”.

Dublin gustuko du Izaskunek: “Hiri txikitxo da eta museo eta eliza piloa dago, parke ederrak ere badaude, Oscar Wildek eta James Joycek ikasitako Trinity College famatua... Nahiz eta hiri txikia izan, jendetza ikaragarria ibiltzen da kaleetan, eta hori da, hain zuzen, gutxien gustatzen zaidana. Batzuetan hiri kaotiko eta zaratatsu bilakatzen da Dublin. Autoarekin ibiltzen naiz hemen, eta zirkulazioa nazkagarria da benetan”.

Aisialdia kirola egin, antzerkera edo zinemara joan, parrandaxoren bat egin edo uhartera bisitatzeko aprobetxatzen du Izaskunek. Mendiko kirolak atsegin ditu, baita igeriketa, squash eta urpean igeri egitea ere. Grenobleko egindako lagunak eta mendia faltan sumatzen ditu.

Hiri atsegina izan arren, ez litzateke han bizi izaten geratuko: “Denboralditxo baterako oso ondo dago, baina hortik aurrera... Soldatak Irlandan altuagoak izan arren, Euskal Herriko bizi kalitatea hobea da, nire iritziz. Ez dakit noiz arte geratuko naizen, nahiago dut gauzak ez planeatzea. Ez dut uste Bergarara lan egitera bueltatuko naizenik. Lanerako gustuko ditudan enpresa motak edo erakundeak hiri handietan daude. Orduan, Bilbora, Bartzelonara edo Madrilera joan nahiko nuke. Ikusi egin behar”.



**Matxiategi
Elektragintza
S.L.**

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.



IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

FUTBOLA

Beran 0-4 irabazi ondoren, preferenteko futbol taldea igoera lortzeko lehian

Bergararrak laugarren daude sailkapenean eta Juanina Garairen taldeak Hondarribia hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:15ean

EDU MENDIBIL

Preferente mailako Bergara futbol taldeak Hondarribiaren aurka jokatu du bihar Agorrosinen, 16:15ean. Aurreko domekan Beran Gure Txokoari 0-4 irabazi ostean, mahoneroak laugarren daude sailkapenean, 42 punturekin.

Begararren aurretik Berio (43 puntu), Tolosa (49) eta Pasajes (55) daude sailkapenean. Kontuan eduki behar da Bergarak partidu bat gutxiago jokatu duela, Trintxerperen aurka Agorrosinen jokatu beharrekoa elurragatik bertan behera geratu zen-eta. Hasiera baten, Gipuzkoako Federazioak partidu hori apirilaren 20an jokatzeko agindu du, baina baliteke bi taldeak ados jartzea eta lehenago jokatzeko. Kontuak kontu, Bergara igoera lortzeko lehian sartu da. Juanina Garai entrenatzailearen esanetan, "lehen postua eskuratzea ia ezinezkoa denez, sari polita izango litzateke bigarren geratzea, igoera fasea



Bergara gol gehien egin dituen bigarren taldea da, 46 golekin, Pasajes liderraren atzetik.

jokatu ahal izateko. Hala ere, martxoan jokatu ditugun partiduetan ikusiko da zer-nolako aukerak izan ditzakegun".

Bihar, zapatua, Hondarribiaren aurka jokatu ondoren, datorren astean Aloña Mendiren aurkako derbia izango da Oñatin.

Jarraian Oiartzun hartuko du etxean Bergarak eta hurrengo jardunaldian Zestoari bisita egingo diote mahoneroek.

Begararak bederatzi gol egin ditu azken bi jardunaldietan. Beriori 5-1 irabazi zion Agorrosinen eta domekan Gure Txokoari lau gol egin zizkion. Gorka San Vicente (2), Josu Zubikarai eta Xabi Arregi izan ziren golegileak. San Vicentek ezin izango du bihar jokatu, Beran bosgarren txartel horia erakutsi ziotelako. Hura da taldeko golegile nagusia (14 gol). Harekin batera Arregi (8 gol) eta Zubikarai (8) izan dira golegile nagusiak orain arte. Pasajes liderraren atzetik gol gehien egin dituen taldea da: pasajeserrek 54 gol egin dituzte eta bergarrek, berriz, 46.

Bihar aurrean izango du Hondarribia taldeari lau gol egin zizkion Bergarak lehen itzulian (0-4). Hondarribiarrak 14. tokian daude, 30 punturekin.

BIGARRIN MAILAKO KADETEAK, ETXAN
Beste futbol partidu bat izango du zapatuan: Igor Fernándezen bigarren mailako kadete taldeak Oñatin zizkion Bergarak lehen itzulian (0-4). Hondarribiarrak 14. tokian daude, 30 punturekin.

ARTXIBOA



Bergara Igeri Elkarteko aurtengo denboraldiko taldea.

Igeri Elkarteko errelebia 12.a izan zen Euskadiko Txapelketan

EDU MENDIBIL

Neritzel Albisuak, Maria Galarragak, Goiatz Pérezek eta Maite Urtzelaik osatutako errelebu taldea 12.a izan zen, puntukako sailkapenean, aste bukaeran Azeptian jokaturako Euskadiko Txapelketan. Juniorretan, 9.ak izan ziren 4x50 m estiloetan eta 10.ak 4x100 m estilo librea.

Banakako probetan emaitza hauek lortu zituzten: Neritzel 3.a izan zen 400 estiloetan, zarpigarrarena 100 m eta 200 m bularretan eta 10. postuan sailkatu zen 400 m estilo librea; Maite, berriz, 4. geratu zen 50 m bizkar eran, 8. postuan heldu zen 100 m bizkarreko proban, 11.a izan zen 50 m estilo librea eta 14. tokian sailkatu zen 100 m estilo librea; azkenik,

Goiatzek 9. postua eskuratu zuen 50 m estilo librea, 9. sailkatu zen 50 m estilo librea eta 10.a izan zen 200 m estilo librea.

Amaia Andueza Igeri Elkarteko entrenatzailea pozik dago lortutako emaitzekin, kontuan izanda nahiko baldintza eskasetan entrenatzen dabilzala. Uda partean igerilariak sasoi betean egongo diren itxaropena azaldu du.

FUTBOLA

Racing-Reala partidua ikustera joateko Santanderrera irteera martxoaren 16an

Racingek eta Realak martxoaren 16an jokatu duten partidua ikustera joateko irteera antolatu dute Realzale batzuek. Autobus bidaiak 12 euro balio du eta partidurako sarrera aparte ordaintzeko beharko da. Irteera 10:00etan izango da, frontoitik. Izenematea Erreki erretegiaren. Argibideak, bertan, 943 76 38 51 zenbakian.

TXIRRINDULARITZA

Herriko zikloturistek denboraldiko lehenbiziko irteera egingo dute domekan

Begarako Txirrindulari Elkarteko lagunek denboraldiko lehenbiziko irteera egingo domekan, martxoaren 2an. San Martin zuzan elkartuko dira, 09:15ean, eta, ohikoa denez, Dorletako Auzo birjinari lore eskaintza egingo diote. 45 kilometro inguruko lasterketa egingo ondoren, luntxa izango dute Zuloa elkartean. Herriko zikloturistei irteeran parte hartzeko dei egiten diete.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

10:30: Canalejas-Dedo Pafarru. **De Ore.**
11:30: Pirulotarrak-De Ore. **Torrekoa**
12:30: Torrekoa-Aterpe. **Pirulotarrak**
18:00: Bedarreta-Belenguá. **K.Piperrak**
19:00: Mongatxurak-K. Piperrak. **Argand.**
20:00: Argandolas-Las p. de Satan. **Mongat.**

ZAPATUAN, KANPOAN

19:00: Etengabe-Pagomendi. Las p. de Satan
DOMEKAN, BARRUAN
11:30: Artusamak-Txipiron. La Quinta
12:30: Errotagain-La Quint. del Buitre. Artusamak
17:00: Cipote Nucleico-TNT. Agirrebeña
18:00: Bayer-Agirrebeña. Cipote Nucleico
19:00: Fac-Bar Ganbara. Bayer

Kadete mailako eskubaloi taldeak erraz irabazi zion domekan Urnietakori (22-6)

EDU MENDIBIL

Kadete mailako nesken eskubaloi taldeak denboraldi-ko hirugarren garaipena erdietsi zuen joan den domekan. Bergararrak erraz nagusitu zitzairen Urnietakoei, 22-6. Oihana Garmendiaren taldea sailkapeneko erdialdean dago une honetan.

Aurkari ahula izan zuen Bergarak domekan, eta Oihana Garmendiaren jokalariek ez zuten hutsik egin. Hasieratik markagailuan alde nabarmena lortu zuten eta azkenerako 16 goleko aldearekin nagusitu ziren etxe-koak. Bergararen partetik jokalarri hauek jokatu zuten: Eneritz Zuazolazigorraga, Naiara Luazaristi (5 gol), Ainhoa Zabaleta (6 gol), Iraide Birumbrales, Olatz Zabaleta, Uxue Agirre (gol bat), Miren Iraeta (gol bat), Nerea Goenaga (gol bat) eta Marina Madariaga (8 gol). Oihana Garaik, Amaia Iparragirrek, Jone Santamariak eta Maier Usobiagak ezin izan zuten domekan jokatu. Guztiak lehenbiziko urteko kade-
teak dira, eta, hortaz, hurrengo urtean maila hobea eskaini ahal izango dutela uste du Oihanak.



Kadete mailako nesken taldeak Kopa Txapelketari ekingo dio liga bukatutakoan.

Liga bukatzeko lau partidu falta dira eta bergararrak sailkapeneko erdialdean daude, bosgarren postuan, hain zuzen. Aste bukaeran ez dute partidurik izango, Inauteriak direla-eta. Etxeko hurrengo partidua martxoaren

15ean jokatuko dute, Zarautz taldearen aurka, hain zuzen.

SENIOR TALDEA, ETXEAN

Senior mailako nesken taldeak etxean jokatu du zapatuan. Bergarrek Ermuaren kontra neur-

tuko dituzte indarrak. Joaneko partiduan Ermuak jipoi ederra eman zion Bergarari. Xabier Lijo-
ren eta Josu Zeziagaren taldeak orduan baino itxura hobea eman nahi du bihar. Partidua 16:30ean hasiko da.

SASKIBALOIA

Senior taldeak beste garaipen bat erdietsi zuen

Senior mailako mutilen saskibaloi taldea 64-62 nagusitu zitzaion aurreko zapatuan, hilaren 22an, Donostiako Santo Tomas Lizeoari. Ramon Conderen taldeak bigarren fasean jokatuak bi partidua irabazi ditu. Bestalde, kadete mailako Bergara taldeak Gros taldeari irabazi zion, 47-23. Eta, azkenik, kadete mailako beste taldeak, Lacorrek, galdu egin zuen etxean Loiolaren aurka, 40-46.

PILOTA

Binakako finalerdia Tolosan jokatu da azkenean

Agirre-Barriola eta Olaizola II.a-Armendariz bikoteek jokatu beharreko binakako finalerdia Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu da domekan. Hasieran, enpresek partidua hori Bergaran jokatu zela iragarri zuten, baina gaizki ulertu bat tarteko, Tolosara eraman behar izan dute, domekan pailazo jaialdia egongo delako Bergarako Udal Pilotalekuan.



Auzoko baserrien gaineko argazki erakusketa, bertako produktuen azoka eta Perurena aita-semeak ere izango dira

Santu Martiriak ospatzeko, Sagardo Eguna egingo dute bihar, zapatua, Osintxun

MONIKA BELASTEGI

Bihar, zapatua, Santu Martirien jaia egingo dute Osintxun. Ekitaldi ugari egingo dira: besteak beste, azoka, auzoko baserrien argazki erakusketa eta herri kirolak. Haatik, berritasun nagusia sagardoa izango da: bi upel ipiniko dituzte, nahi beste sagardo edateko.

Azken urteotan indarberrituz doa Osintxuko Santu Martirien Eguna. Jaia gainbeheran zegoela eta, orain dela lau bat urte berreskuratu eta indarberritzea erabaki zuten Txurrumilo elkarteak. Horrela, Udalaren laguntzarekin ekitaldi berriak antolatzen dituzte eta jende ugari hurbiltzen da Osintxura Santu Martirien Eguna gozatzera.

Bihar ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte: 10:00etatik 14:30era bitartean *Osintxuko baserriak argazkitan* izeneko erakusketa egongo da pilotalekuan. Erakusketak 40 baserri inguru jasotzen ditu, eta argazki bakoitzak testu bat izango du lagungarri. Batetik, baserriak 1675ean zuen jabearen datuak agertzen dira; bestetik, 1761ean zuen jabearena; eta, azkenik, baserri bakoitzak izan duen izenik zaharrena, gaur egungoa eta izenaren ahozko bertsioa.

Erakusketaren ordutegi berean, bertako baserrietako produktuen azoka egongo da ikusgai



Osintxuko baserrietako produktuak egongo dira ikusgai azokan.

Bi sagardo upel jarriko dituzte plazan, euro baten truke nahi beste edateko

'Osintxuko baserriak argazkitan' izeneko erakusketa egongo da pilotalekuan

Auzoko baserrietako produktuekin azoka jarriko dute plazan: zazpi postu egongo dira

plazan. Zazpi postu egongo dira, lau baserriko produktuenak, beste bat tailak egiten dituen artisauarena, beste bat pomada saltailearena, eta Txurrumilo taldeak gozo, gazta eta ogiarekin jarriko duena. Eta bolatokiaren taloa egongo da.

BI SAGARDO UPEL MARKINATIK OSINTXURA

Aurtengo berritasun nagusia sagardoa izango da. Antolatzaileen esanetan, urtero-urtero zerbait ezberdina antolatzeke ahalginean ari dira, Santu Martirien Egunari eusteko eta, era berean, parte-hartzaileei gauza berriak eskaintzeko. Hori horrela, bi upel jarriko dituzte Herriko Plazan. Sagardoa Markinatik ekarriko dute, eta euro baten truke edalontzia erosi eta nahi beste sagardo edateko aukera egongo da. Gainera, giroa alaitzeko Ainhua eta Nerea trikitilariak jardungo dute egun osoan.

Horrez gainera, 12:30ean, Moises Azpiazu dantza taldeko neska-mutikoei dantza saioa egingo dute plazan, eta horren ondoren, Perurena aita-semeek harri jasotze erakustaldia egingo dute.

Azkenik, eguna ondo bukatzeko, bertso afaria egongo da Txurigo jatetxean. Angel Peñagarikano eta Jesus Mari Irazu bertsolariak izango dira afarian. Bertso afarirako izena Osintxuko edozein tabernatan eman daiteke. Prezioa 22 euro da.

Korrika apirilaren 6an helduko da, Osintxu aldetik

MONIKA BELASTEGI

Korrika apirilaren 6an ailegatu da herrira. Osintxutik etorriko da eta 15:45 aldera sartuko da, Amillagatik. Herrian barrena ibili ondoren, Oñatirantz abiatuko da. Kilometroak erosteko epea zabalik dago, eta horretarako Arrasateko AEKra jo beharko da.

Apirilaren 4an, 18:30ean, abiatuko da Mauletik Korrika 13, eta apirilaren 13an bukatuko da Iruñean, eguerdi partera. Euskal Herrian barrena egingo duen ibilbidean 2.150 kilometro egingo ditu eta tartean Bergaratik ere pasatuko da. Apirilaren 6an ailegatu da hona, 15:45 aldera, Osintxu aldetik. Eta herrian barrena ibili ondoren Oñatirantz abiatuko da. Bestalde, Korrika 13ren leloa honakoa da: *AEKrekin herri bat geroa lantzen*.

Kilometroak ere eros daitezke dagoeneko. Nerea Abade Debagoienerako Korrikako arduradua

nak azaldu duenez, kilometroak erosteko Arrasateko AEK euskaltegiara joan behar da. Han erositako kilometroari dagokion peto zenbakia emango diote erosleari, baita dirua sartzeko kontukorrante zenbakia ere. Kilometroak 300 euro balio du eta dirua esandako kontukorrantean sartzera, petoaren zenbakia emango da. Era berean, martxoaren 20tik 24ra bitartean postulazioa egingo dutela gehitu du Abadek.

Horrez gain, Korrika-laguntzaile egitasmoak aurrera jarraitzen du, eta harekin bat egiteko interesa duenak toki hauetan

Osintxu aldetik sartuko da, 15:45ean eta herria zeharkatu ondoren Oñatirantz abiatuko da

eskura dezake txartela: Jardunen, Arrano eta Pol-Pol tabernetan eta Akulu AEK euskaltegian. 10 euroren truke, egitasmoan parte hartzen duenak Korrika-laguntzaile dela adierazten duen txartela eta tximeleta baten pina eskuratuko ditu. Txartelarekin deskontuak izango ditu hainbat zinema eta dendatan.

ORAINGOZ, PILOTA PARTIDUA

Korrika Kulturalari dagokionez, Bergaran izango diren ekitaldiak oraindik zehaztu barik daudela adierazi du Nerea Abadek. Aurreko egunean egin zuten lehen batzarra herriko hainbat eragileekin, eta erabaki zuten hilaren 5ean, 19:00etan, kultura etxean egingo duten bigarren batzarrean nork bere proposamenak egin eta ekitaldiak zehaztuz joatea.

Hala ere, bada zehaztutako ekitaldi bat: hilaren 23an, pilota partidua egongo da Udal Pilotalekuan, 20:00etan. Titin III.ak eta Zezeagak Xalaren eta Goñi III.aren kontra jokatu dute.



Duela bi urte guez iritsi zen Korrika. Aurten egun argiz ailegatu da.

E, TXO!

GUREGAIK/ LANA

Lanbide Heziketa ikasi orduko, lanera

AINZANE IRIZAR

Eusko Jaurlaritzak egin berri duen inkesta baten arabera, Lanbide Heziketako ikasleen %91 ikasketak bukatu eta sei hilabetera lanean daude. Astelehenean aurkeztu zituzten inkesten emaitzak.

Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak eta Joseba Azkarraga Lan sailburuak aurkeztu zituzten ikerketa horren emaitzak. Bertan azaldu zutenaren arabera, Lanbide Heziketako ikasketak egiten dituztenen %91k lanpostua lortzen dute sei hilabeteren barruan. Dena dela, batez beste, bi hilabete behar izaten dituzte ikasle horiek lanpostua topatzeko. Lau-


tik hiruk, berriz, egindako ikasketekin zuzenean lotutako lanpostua lortzen dute.

Bestetik, Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikasleen enplegu tasa %84 da.

Inkesta horretatik ateratako datu batzuk besterik ez da hemen emandako hauek. Gauzak horrela, Lanbide Heziketa oso egoera onean dagoela adierazi zuten Iztuetak eta Azkarragak.

Edozelan ere, lan merkatuan hain irtenbide handia duen espezialitate hauetan emakumeen parte-hartzea oraindik ere oso txikia dela azaldu zuten bi sailburuek.

EAEko 148 ikastetxetako 10.000tik gora ikasleren artean egin dute inkesta.



Hamar milatik gora ikasleren artean egin dute inkesta.

ARTXIBOA

LOTSABARIK/ Erik Cuevas

“Aurpegi espresiboak gustatzen zaizkit”

AINZANE IRIZAR

Oraingo astean ere osintxuar bati egin diogu elkarrizketa. Nork bere bertuteak zeintzuk diren esatea zatarrak iruditzen zaio; baina, hori bai, bere hutsunea zein den kontatu digu: gehiegi berba egiten du.

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Bateria jotzaile; txikitan, izugarri gustatzen zitzaidan Delirium Tremens taldea. Behin Osintxura etorri ziren eta taula gainera igo ninduten; bateria jotzeko aukera izan nuen han. Horren ondorioz, bateria jotzen ikasten hasi nintzen.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?

Burusoil. Edozelan ere, espero dut neskalaguna izatea eta lantokiren batean lanean jardutea.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Ikasketetan saiatzeko eta etxean gehiago laguntzeko.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ondo portatzea; dena dela, askatasun handia ematen didate.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Maitate dudana.

• Zure bertute bat?

Besteek esan beharko dute.

• Eta hutsune bat?

Gehiegi berba egiten dudala.

• Zerk amorratzen zaitu?

Faxismoak; orain, adibidez, *Egunkaria*-ren itxierak izugarri amorratu nau.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak; begi barik ezin izango nintzateke bizi.


• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Aurpegiari; sentsazioak espresatzen dituzten aurpegiak gustatzen zaizkit.

• Zer egiten duzu seduzitzeko? Ezer ere ez.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Badauzkat, baina hori oso pertsonala da. Gainera, umek ere irakurtzen dute elkarrizketa hau.



ADINA: 18 urte • IKASKETAK: Mekanizatuak • ZALETASUNAK: Parranda eta kirola egitea
LIBURU BAT: 'El señor de los anillos', J.R.R. Tolkien-ena • FILM BAT: Rob Roy • MUSIKA TALDEA: Metallica • KIROL TALDEA: Real

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Atari hauek kale berean daude. Zein kaletan?

PINTORE BERGARARRAK GAUR

Jone Telleria

EDU MENDIBIL

Jone Telleriak (Bergara, 1976) marrazteko zaletasuna izan du txikitatik; Marino Gonzálezekin ikasten ibilitakoa da eta gaur egun Juanjo Altunaren estudioan eta Bearteko lokalean margotzen du. Zera esan digu Jonen: "Hasieran oso pintura intimista egiten nuen, eta hortik zabaltzen joan naiz. Pintura kontzeptualagoa egiten dut orain. Niri eta inguruari eragiten dizkioten gauzen gaineko hausnarketak egitea gustatzen zait eta sortze prozesuari garrantzi handia ematen diot. Estudioan, azken baten, zailtasunei irtenbideak topatzen ahalegintzen gara, eta beti dago besteengandik ikasteko aukera". Pinturak bere giza formazioan garrantzi handia izan duela diosku: "Diseinu grafikoaren bidetik jo nahi nuen, baina ez da pintura bezain askea".

Martxoaren 17an erakusketa zabalduko du Donostiako Ziripot tabernan, Larramendi kalean: "Hasieran oso margolan ilunak egiten nituen eta azkenaldian, berriz, argiagoak. Lan mekanikoa bihurtzen ez bada, nahiko nuke etorkizunean pinturatik bizi ahal izatea".

"Inguruari eragiten dizkioten gauzen gainean hausnarketa egitea gustatzen zait"



E.M.

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|--|---|
| <p>1.
Nori emango dio Bedelkarrek afari-merienda Inauterietan?</p> <p>A/ Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoei.
B/ Kalea gehien animatzen duen taldeari.
C/ Udal Musika Bandari.</p> | <p>2.
Korrika helduko da Bergara apirilaren 6an. Zenbagarren edizioa da aurtengoa?</p> <p>A/ 8.a.
B/ 11.a.
C/ 13.a.</p> | <p>3.
Zein da preferente mailako Bergara futbol taldeko golegile nagusia?</p> <p>A/ Gorka San Vicente.
B/ Xabi Arregi.
C/ Jokin Mendiartz.</p> |
|---|--|---|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileron artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

TERE AZKARATE errendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Tere!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: 1348an / Galde debalde: 1-B, 2-B, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Gurelesa esne osoa

Litroko brika

0,67 €

111 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

SANTOS



**Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena**

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10

**BERGARA
MARMOLERIA**
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09



BERGARA
Nerea Núñez
Martxoaren 2an 11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta ahizpak.



BERGARA
Aritz Rezusta
Otsailaren 28an 12 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Beñat.



BERGARA
Jose Felix De Benito
Otsailaren 29an 43 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Miren Manuel
Martxoaren 3an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Irati Palacios
Martxoaren 3an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak; bereziki, Lorea.



ELGETA
Mikel Canelo
Martxoaren 1ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Nere Zurro
Otsailaren 26an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Josu Gantxegi
Otsailaren 20an 15 urte.
Urte askotarako!
Koadrilako neska.



BERGARA
Jon Soto
Otsailaren 25ean 15 urte.
Zorionak! Koadrilakoak
eta hiru neska berezi.



BERGARA
Juan Mari Igarza
Otsailaren 26an 42 urte.
Urte askotarako!
Bego, Leire eta Itsaso.



BERGARA
Ayala Sasieta
Martxoaren 3an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitor Oregi
Otsailaren 21ean
12 urte. Urte askotarako!
Koadrilako neska.



ANTZUOLA
Maria Jose Moreno
Otsailaren 26an 28 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



BERGARA
Mikel Marauri
Otsailaren 21ean
14 urte. Urte askotarako
Txopito! Lagunak.



BERGARA
Iñigo Araizegi
Otsailaren 26an 14 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



BERGARA
Maddi Elortza
Otsailaren 29an 7 urte.
Zorionak poxpolin!
Aita, ama eta Amaia.



BERGARA
Asier Roman
Otsailaren 29an 3 urte.
Urte askotarako! Jokin,
Alazne eta Amagoia.



BERGARA
Aitor Gorosabel
Martxoaren 4an urteak.
Zorionak! Josu, Sara,
Jokin eta Maitane.



BERGARA
Josu Zezeaga
Martxoaren 3an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maddi Laskurain
Martxoaren 4an 12 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



BERGARA
Mikel Garcia
Martxoaren 6an 5 urte.
Zorionak! Aitatxo,
amatxo eta Ander.



BERGARA
Eneko Arizaga
Martxoaren 3an 11 urte.
Urte askotarako eta
asko ikasi! Etxekoak.



BERGARA
Izar Morillas
Martxoaren 5ean 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maite Etxaniz
Martxoaren 4an 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Ander Aristi
Otsailaren 28an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aritz Aranguren
Martxoaren 1ean 28 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.

Zorionak!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

- Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
- Antzuola:** Udal Liburutegia, asteleheneretan 17:00etatik 19:00etara
- Elgeta:** Erosle-Baltxongua

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak orokorrean
Pintura industrialak
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

izeder

ARTE DEKORATIBOKO ikastaroak

943 76 71 05.
Arruriaga 2. BERGARA

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

Biona
BANATZAILEA

San Pedro 3. BERGARA.
Tf. 943 76 23 79



SOINUZ BLAI

Musikarekin busti nahi?

Goitb
Goiena Telebista

*Ikusiko
duzu!*

Eguenetan eta egubakoitzetan,
21:15ean.

Aurkezleak
Maite Albes
Ugutx Usandizaga

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 28a / 148. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Mozorrotu eta kalera irtengo dira herritarrak domekan

AINTZANE IRIZAR

Urtero moduan, domekan egingo dituzte Antzuolan Inauterietako ospakizunik gehienak. Dantzak eta mozorroak izango dira egun horretako protagonista. Baina ekitaldi berri bat ere egongo da aurten: Gazte Asanbladak afaria antolatu du zapatuan.

Bi dantzari talde ibiliko dira kale-rik kale, goizeko hamarretan hasita. Alde batetik, Sorgin dantzako taldea ibiliko da. Bestetik, inude eta artzainak. Herriko Plazatik abiatuko dira horiek guztiak, batzuk kalean gora eta beste batzuk, berriz, kalean behera.

Ohiturari utsiz, hainbat pertsonaia ibiliko dira dantzariekin batera: hartza, tximinoa, alkatea, alkatesa, medikuak, erizainak eta fraidea, besteak beste.

12:15ean plazan elkartuko dira berriro dantzari guztiak, eta denek batera egingo dute dantza saioa: Luzaideko kontradantza, txantxoak eta makila txikiak dantzatuko dituzte, besteak beste.

INAUTERIETAKO AFARIA

Esan bezala, ohiko ekitaldiez aparte, Antzuolako Gazte Asanbladako kideek ekitaldi berria antolatu dute aurtengo Inauterietan: hain zuzen, zapatu gauean afaria egingo dute, seguruena, parrokiaren lokalean, odol ateratzeak egiten dituzten egoitzan.

Mozorro afaria izanik, jakina, mozorrotuta joatea eskatzen dute antolatzaileek. Joan nahi dutenek



Domeka eguerdian, dantza saioa eskainiko dute Herriko Plazan.

Larrea eta Mox tabernetan dituzte txartelak salgai, zazpi euroren truke.

GAUR, EGUBAKOITZA, UMEEN TXANDA
Herri Ikastetxean, berriz, gaur, egubakoitza, ospatu dituzte Inauteriak. Datorren aste osoan jai dutenez, gaur mozorrotuta

joan dira herriko neska-mutikoak eskolara.

16:00etan, berriz, gurasoek prestatutako txokolate eta torrada jana izango dute Zurrategin; eta horren ondoren, berriz, Zirkotipiaren emanaldia izango dute, Zurrategi plazan bertan hori ere, 17:00ak aldera.

LABUR

Gurasoendako hitzaldia izango da eguen arratsaldean Herri Ikastetxean

Herri Ikastetxeak ipuinen gaineko hitzaldia antolatu du, *Irakurtzen ikasi baino lehen irakurtzen* izenburupean. Datorren asteke egunean, martxoaren 6an, izango da lehen saioa, eta Juan Carlos Alonsok eskainiko du.

Martxoaren 13an, berriz, gai horren gaineko bigarren hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonsok berak. Hitzaldi biak 18:30ean izango dira, Herri Ikastetxean bertan.

KZGunea ez dute zabalduko martxo bukaera edo apirilera arte

Urtarrilean zabaltzekoak ziren, baina hainbat arazo izan dituztela-eta, ez zuten zabaltzerik izan. Batetik, Telefonikak linea sartu behar du Olaneraino. Martxo hasierarako lan hori amaituta izatea espero dute. Bestetik, Euskaltelek ADSL linea jarri behar du. Hortaz, martxo amaieran edo apirilean zabalduko dute KZGunea.

Baserritarren jantzien erakusketa zabalik egongo da oraingo asteburuan ere

Aurreko asteburuan zabaldu zuten baserritarren jantzien erakusketa zabalik egongo da oraingo asteburuan ere. Iñigo Ramíren *Antzuolako ohitura zaharrak* liburuaren aurkezpenarekin lotuta jarri dute ikusgai erakusketa hori. Olaner etxean dago erakusketa, ohiko ordutegian.

Oraingo domekan ez da zinema emanaldirik egongo, Inauteriak direla eta

Inauteriak direla eta, ez dugu zinema emanaldirik izango oraingo domekan. Datorren astean, baina, izango dugu film bat ikus- teko aukera: *Pastel magikoa* euskarazko filma eskainiko dute hilaren 9an, 16:30ean, Olaner etxeko aretoan.

Gidarik jaso ez dutenek 'Berrigara'-ko egoitzara, Irizar jauregira, jo dezakete

Oraingo astean bukatu dute Antzuolako, Bergarako eta Elgetako telefono eta komertzioen gida banatzen. Hala ere, oraindik etxean gidarik jaso ez baduzue, *Berrigara*-ko egoitzara jo dezakezue haren bila. Bergarako Irizar jauregian dago *Berrigara*-ko egoitza.

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI

taberna
jatetxea



Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

IRAKURLIAREN TXOKUA

IRITSIKO AL DA GOITB?

Urte batzuk dira, ibarreko euskara elkarteek Goiena egitasmoa abian jarri eta udalek diruz laguntzeko erabakia hartu zutela. 2000. urtea baino lehen hasi ziren lanean elkarteak. Ilusio eta gogo handiz ekin zioten, baina bidean aurkituko zituzten oztopoak uste baino handiagoak izango ziren. AHTren martxa eman nahi izan zitzaion egitasmoari, baina nekez lortu zen hasieran, behintzat, Mekolaldetik Zumarragara igotzen zenaren moteltasuna gainditzea. Deskargako maldak baino mesfidantza eta erresistentzia gogorrak gainditu behar izan ziren.

Ez zen hau izan Antzuolako udal eta herritarren kasua, hasieratik proiektuarekin bat egin eta diruz lagunduz bultzada garrantzitsua eman baitzioten.

Askotan, ordea, gogoia ez da nahikoa izaten helburua lortzeko. Arazo administratiboak tren zaharraren txirringetara lotutako harlauza bihurtu ziren bidea zailduz eta abiadura oraindik gehiago motelduz.

Une honetan, GOITB ibarreko herri guztietan ikusten da (Oñatira iristea aste honetako kontua da), Antzuolan izan ezik.

Goienatik garbi utzi nahi dugu ez dela Udalaren borondate faltarik ezta Goienaren ere.

Legezko arazoentzat irtenbideak aztertzen ari gara, lehenbailehen trena martxan jarri eta GOITBko uhinak Antzuolara heda daitezten.

Bukatzeko, Usoa Agirrerren artikuluko puntu batek argibide bat behar duelakoan, Goienak ematen dituen zerbitzuak kobratzen ditu soilik. Antzuolako Udalarari ez diogu kobratzen telebista zerbitzua.

INAZIO ARREGI
Goienako zuzend. nagusia

POLITIKA

Bi proiektu politiko aurkeztu dituzte herrian azkeneko astean

AINZANE IRIZAR

Zapatuan, herri plataforma bat aurkeztu zuten, "Gertu gae" izenarekin. Plataformaren bultzatzaileek adierazi zigutenez, ezker abertzalearen ideiak defendatzeko helburua dute. Atzo, berriz, eguena, Aralar alderdiak bere proiektua aurkeztu zuen.

Zapatu eguerdian jende mordoia elkartu zen plazan "Gertu gae" izena jarri dioten herri plataformaren aurkezpenean. Ehunetik gora lagun batu ziren herriko talde berri horren nondik norakoa jakiteko.

Herriko Plazan egindako aurkezpenaren aurretik kalejira egin zuten plataformako kideek eta hainbat herritarrek, trikitilariak lagunduta.

13:00etan hasi zen plazan aurkezpen ekitaldia. Herriko bi dantzari aureskua egin zioten Ikurinari; horren ondoren, plataformako bi kidek taldearen proiektu politikoa azaltzen duen idatzia irakurri zuten. Batutako herritar guztiek argazki saioa



Ehunetik gora lagun batu ziren "Gertu gae" plataformaren aurkezpenean.

izan zuten ondoren, eta gero, luncha egon zen.

ARALAR ALDERDIAREN AURKEZPENA
"Gertu gae" plataformarena, baina, ez da izan azkeneko aste honetako aurkezpen bakarra.

Eguen iluntzean, Aralar alderdi politikoak bere proiektuaren aurkezpena egin zuen udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Juan Martin Elexpuruk eta Mikel Basabek jardun zuten alderdiaren proiektua azaltzen.



Herriko ohiturak liburu baten

Mezaren ondoren jarri zuten aurkezpenerako hitzordua. Eta halaxe behar zuen, gainera, aurkeztu beharrekoa ohitura zaharren gaineko liburu izanda. Hainbat azalpen eman zituen Iñigo Ramirez de Okariz egileak aurkezpenean. Bukaeran, berriz, bereziki bi pertsonari eman zizkien eskerrak, euren laguntzagatik: Sarasketako Juan Praixkori eta señorita Mariri. Bakoitzari liburu bana eman zien Iñigok. Azkenik, liburu Gema arrebari eskaini zion. /A.I.

LABUR

Alebin mailako herriko gimnastak irabazle Bergaran

Otsailaren 15ean, Eskola Arteko Jokoen lehendabiziko fasea jokatu zuten Bergaran. Eta Herri Ikastetxeko alebin eta benjamin mailako nesken taldeek hartu zuten parte. Arrasate, Bergara, Azkoitia, Tolosa, Zarautz eta Antzuolako hainbat ikastetxetako gimnastek hartu zuten parte. Guztira, alebinak eta benjaminak kontuan hartuta, 200 bat partaide lehiatu ziren.

Alebin mailan, Debagoieneko eta Debabarreneko gimnastak lehiatu ziren. Antzuolarrak izan ziren irabazleak, Arrasateko San Viator eta Laskorain ikastetxetako taldeen aurretik.

Hona hemen alebin maila osatzen duten nesken izenak: Ainhoa Martínez, Ainara Amorós, Jurdana Pildain eta Usoa eta Lide Toledo ahizpak.

Lehendabiziko fasea irabazteak dakarren pozarekin eta horrek ematen duen animuarekin, hurrengo txapelketarako prestatzen ari dira orain gimnasta antzuolarrak. Martxoaren 23an izango da txapelketa hori, Bergaran.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Inauteriak direla eta, gazteek ez dute partidurik izango.

PILOTA

Martxoak 1
Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
17:00: Olalde-Behar Zana (Infantilak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Gazteak B 1 Antzuola 4 (2. erreg.)
Internacional 4 Antzuola 0 (Gazt.)

PILOTA

Udaberri Saria
Olalde-Landare (nag. paletaz) ... 35-24

**LEKY-BERRI
MERENDEROA**


Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko otsailaren 28a / 132. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Mozorroek herriko kaleak hartuko dituzte

OXEL EROSTARBE

Urtero moduan, gaur ospatuko ditugu Elgetan Inauteriak. Arratsaldean, herriko umeak mozorrotuko dira. Gauean, berriz, nagusien txanda izango da. Gaztetxean kontzertua izango da. Hala, goizaldera arte jai giroa izango da nagusigure herrian.

Urtero moduan, mozorrotzen lehenak eskolako umeak izango dira aurten ere. Eskolan, 14:30ean jokoak izango dira eurentako. Eskolako ume guztiak mozorrotuta egongo dira ordurako. Jokoen ondoren, Guraso Elkarteak antolatutako askari goxoa izango dute, eta giroa alaitzeko musika egongo da plazan. Iluntzera arte eurak izango dira Elgetako Inauterietako protagonista. Iluntzetik aurrera, ordea, nagusiek hartuko dituzte herriko kaleak. Festa izango dute goizaldera arte.

GAZTETXEAN JAI AIZANGO DA GAUEAN

Urtero moduan, gaztetxeok ez diete Inauteriei hutsik egin eta Mozorro Jaia antolatu dute gaur. Gaztetxeo jaiak 22:30ean hasiko da. Elorrioko *Trapatoni* taldearen



GOIBEKOKALE

Arratsaldeko lehen orduetan umeak izango dira Inauterietako protagonista.

reggae doinuek emango diote hasiera kontzertuari. Horren ondoren, Agirren taldeko trikitilariek hartuko dute taula, goizeko ordu txikietara arte. Dantza

eta dantza artean, 02:00ak aldean, Mozorro Lehiaketako sariak banatuko dituzte gaztetxeok. Gaztetxea bera eta zenbait taberna ere mozorrotu egingo dira.

HIRIGINTZA

Faseka egingo dute Irisgarritasun Plana

O.E.


Martxoan hasiko dira Irisgarritasun Plana aurrera eramateko lanekin. Udal aurrekontuetan plan hori aurrera eramateko 13.655 euro zehaztu zituzten arren, Irisgarritasun Planak 18.973 euroko kostua izango du. Dena dela, plana hainbat fasetan egingo dute. Lehenengo lanak martxoko lehenengo asteetan hasiko dituzte: eskailerak dauden bi puntutan arrapalak ipiniko dituzte, gurgil-aulkiendako. Arrapala bat San Roke kalean, eliza ostetik Artekalea dagoen pasabidean jarriko dute eta bestea, San Roke kaleatik Andra Mari plazara dauden eskaileretan. Hain zuzen ere, lehenengo fasean arrapala bi horiek jarriko dituzte.

Bigarren fasea apirilean hasiko da. Fase horretan, une honetan espaloietan dauden eskailerak kendu eta espaloia errepedearen maldara jaitziko dute, zebrabideak egokituz. Elgetan ez dute zebrabide altxaturik ipiniko; izan ere, Diputazioak 3.000 auto baino gehiago pasatzen diren errepedeetan horiek jartzea debekatua dauka. Leku hauetan ego-

kituko dituzte zebrabideak: Arku inguruan, plazatik Salvador kalea doan zebrabidea egokituko dute; Ozkarbitik farmaziara zebrabide berria egingo dute; Panaderokua tabernaren parean, Lasao zeharkatuko duen zebrabidea ipiniko dute; Berrondokuarantz dagoen pasabidean zebrabidea egingo dute; Ostatu jatetxearen aurrean ere zebrabidea egokituko dute. Espaloia ere handitu egingo dute han.

SEMAFOROAK ERE IPINIKO DITUZTE

Irisgarritasun Planaren lanekin batera, semaforoak ere ipiniko dituzte. Aurrekontuetan 31.386 euro zehaztu zituen Udalak horretarako. Hala, Diputazioarekin berba egiten dihardu Udalak, lanak martxoan edo apirilean hasteko. Herriko erdialdetik pasatzean autoek lastertasuna murriztea dute helburu semaforoak. Oinezkoendako babesguneak ere ipiniko dituzte herriko sarrean guztietan. Semaforoak leku hauetan ipiniko dituzte: arkuaren bi aldeetan, Ostatu jatetxearen aurrean, Salvador kalearen hasieran eta amaieran eta Artekale erdialdean.



Ikastaro trinkua hasi dabe

KZGuneak erreleban dihardutenendako antolatuko ikastarua hemen astian izan da. Ikastaruan jardun dabenak arratsaldero lau ordu emon dittue Interneten gaiñeko eskoletan. Bost bat lagun elkartu dira KZGunean, Interneten gaiñeko ikastaro trinko horreik jasotzeko.

Aurrerantzean be ikastarua antolatzen jarraituko dabe KZGuneko arduradunak. Hortan, Internet ezagutzeko asmua daukazuena KZGuneran jai biharko zari izena emotera. / O.E.

LABUR

Bihar arratsaldian aurkeztuko dabe plazan Elgeta Auzolanian plataformia

Aurreko zapatuan zan aurkeztetua Elgeta Auzolanian plataformia. Baiña *Egunkaria*-n aldeko manifestaziñua egun eta ordu berria zanez, atzeratzia erabaki zeben eta bihar izango da plataformian aurkezpena. Ezkertiar eta abertzaliak osatuko daben plataformian aurkezpena plazan izango da, 17:30ian. Ekitaldixa jai giruan ospatuko dabe, eta txalapartia, lancha, musikia, eta abar egingo dira. Hori plataformiori Gernikako Deialdixan ondorixua da.

'Euskaldunon Egunkaria'-n aldeko laguntzaille taldian batzarra astelehenian

Herri danetan moduan, Elgetan be *Euskaldunon Egunkaria*-n aldeko laguntzaille talde bat sortzeko asmua dago. Batzarra astelehenian izango da, liburutegixan, 19:00etan. Gertatu danan gaiñeko informaziñua azalduko dabe batzarrian. *Egunkaria*-n alde aurreratu eruango dan kanpaiñian barri be emongo dabe. Kanpaiñian lehenengo urratsa harpidetzak egittia izango da.

ELKARRIZKETA

HARITZ GALLASTEGI/EGUNKARIA-KO ETA EUSKADI IRRATIKO KAZETARIA

“Eskertzekoa da ‘Egunkaria’-k jaso duen babesa”


O.E.
Orain dela hiru urte ekin zion Haritzek *Egunkaria*-rendako lan egiteari. Besteak beste, kirolean, *Bizkaia* gehigarrian eta *Uni* gehigarrian egin du lan. *Iaztik*, *Egunkarian* eta Euskadi Irratian dihardu Athletic jarraitzen.

Non izan zenuen *Egunkaria* itxi zutelako berria?

Elgetan. Lezamara joatekotan nengoela aitak deitu zidan berria emateko. Ordurako Bilbon *Euskaldunon Egunkaria*-k duen delegazioa itxita zegoen eta Andoaingo, ixtear.

Zer izan zen burura lehenengo etorri zitzaizuna?

Buruan gauza asko batu ziren. Hasiara baten, harridura sentitu nuen. Aurrerago, ordea, ohartu nintzen sarritan berba egin genduela holakoren bat gerta zitekeela, zerrendan hurrengoak gu izan gintezkeela. Txantxetan bazen ere, AEK auziaren ostean sarritan egin dugu berba horretaz. Zer izan zen lehenengo egin zenuena?



Lankide bat deitu nion. Hark ere irratitik jakin zuen berria. Eguenean, Vodafoneko sarea bertan behera geratu zen eta poltsikoko telefonoekin arazo asko izan genituen. Lezaman nengoen bitartean irratitari itsatsita egon nintzen. Bazkaltzeko orduan elkar-

“Langileok sarritan berba egin dugu holakoren bat gerta zitekeela”

tu ginen lankideok. Han jakin nuen benetan zer gertatu zen. Hamar lankide atxilotuta eramane zituzten. Bost kartzelaratu egin dituzte. Egunetik egunera atxilotuen gaineko informazio zabalagoa daukagu. Pozgarria da hiru etxe-

ra bueltan etortzea. Tamalgarria, ordea, horiek jasan duten tratua. Zapatukoa urtetan Euskal Herrian egin den manifestazio handienetakoa izan zen.

Donostian une hunkigarriak bizi izan genituen. *Egunkaria*-ri babesa ematen horrenbeste jende ikustea eskertzekoa da. Detalle txikiak ere izan ziren; adibidez, emakume nagusi bat negarrez ikusi genuenean. Bilboko lankide batek ere negar hastekotan zela esan zidan.

Langileok zelan ikusten duzue etorkizuna?

Lehenengo beroaldian denok batuta egon gara, eta gaude. Gertatutakoak, ordea, beldurra ematen du, *Egin*-ekin zer gertatu zen badakigu-eta. Horrek beldurra eta pena ematen du, bidean kazetari asko geratu ziren-eta. Aurreko egunean gure bizitza aldatu zela esan daiteke. Gerta daiteke Bilboko erredakzioan moduko lagunartek berriro ez topatzea. Ni beste asko baino hobeto nago, Euskadi Irratian lana daukat-eta. Langileok *Egunkaria*-ren proiektua aurrera atera nahi dugu, eta horretan ahaleginduko gara.

KULTURA

Goibekoren batzarra martxoaren 6an

O.E.
Goibeko kultura elkarteak batzar orokorra egingo du martxoaren 6an. Batzarra liburutegian izango da, 21:15ean. Talde eragilekoek batzarrean parte hartzeko dei egin gura diete bazkideei. Izan ere, batzar horretan hartuko dituzte Espaloia Kafe Antzokiaren gaineko erabakiak.

Orain dela lau urte elkarteak sortu zenetik, Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua aurrera eramateko asmoa azaldu dute.

Urte hauetan gorabehera asko izan ondoren, proiektua aurrera eramateko sostengua emango duten erabakiko dute bazkideek.

‘EGUNKARIA’ IXTEAREN AURKA

Goibekotik euskararen aurkako erasotzat hartu dute *Euskaldunon Egunkaria* ixtea. Elkartearen elkartasuna adierazi nahi diete atxilotutakoei, euren familiakoei eta hango langileei. Bereziki, *Egunkaria*-ko langile eta Goibekoko bazkide diren Haritz Gallastegiri eta Beatriz Zabalondori.



Jente asko batu zan Markeliñen ‘KK’ ikusteko

Aurreko domekan, herritar ugari gerturatu ziran plaza Markeliñen *KK* antzezlanaren estreinua ikustera. Berbarik erabili barik gauza asko esan leikela erakutsi zokuen barrero Markeliñekuek. Adin guztixetakuak elkartu ziran plazan. Antzerkiko pertsonaje inportantiena zan neskatuan gorabeherekin bai umiek baita nagusiek be nahikua barre egin zeben. Plazan egindako hau ekitaldixau Kultura batzordiak antolatu zeban./O.E.

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Goibekokale

BOLINAGA
METALAK

SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01

ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Mutil koadrila
Gorlako
erromerian

Abuztuko lehenengo domekan erromeria handia ospatzen zuten Gorlan. Argazki hau orain dela 36 urtekoa da.

Esan bezala, erromeria garrantzitsua ospatzen zuten garai baten Gorlan. Jatekoa aldean eramaten zuten jendeak, egun pasa egiteko. Trikitilari mordoak egoten zen Gorlan, eta hainbat korro osatzen zituzten dantzarako.

Gaur egungo txosnen aitzindariak ere izaten ziren, taberna funtzioa betetzen zutenak.

Argazkia laga digun Angelita Enak azaldu digunez, argazkilariak ibiltzen ziren koadrilei erretratuak ateratzen. Argazki hau ere halaxe ateratakoa da. Honako hauek agertzen dira eskumako argazkian:

Ezkerretik eskumara: Jose Antonio Gezalaga, Migel Anjel Lezeta, Bibiano Barkero, Migel Anjel Gezalaga (behean), Juan Mari Larrañaga, Luis Mari Gezalaga eta Jose Mari Gezalaga.

Argazkia: Angelita Ena



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzú!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ANTZUOLA

Errota Berri,
1941ean

Herrian bertan dugun errota hau dezente aldatu da 1941etik hona. Gaur egun, ogia eta bestelako gozoak saltzeko denda dago errota-etxearen aldamenean, etxeari itsatsita. Etxearen azpiko aldea, berriz, estalita dago, eta garaje moduan erabiltzen dute Errota Berrikoek. Lehen, berriz, hantxe zegoen errota; errekek zekarren urak mugitzen zuten errota.



1941

Argazkian ikusten denez, gaur egun garajea duten tokian zegoen errota, eta haraxe sartzen zen errekekako ura.



2002

Orain dela urte asko estali zuten argazkian agerian dagoena, balkoiaren azpiko aldeko gunea. Errota, berriz, orain dela 20 bat urte kendu zuten.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

krak!



NEURRI

IREKI BERRIA
SAN PEDRO 12
943 76 34 61

Aste barruan: 10:30-13:00 / 17:00-20:00
Zapatuetan: 10:30-13:00

KONPONKETAK

kremaierak, botoiak, adabakiak, urratuak...

UKITUAK

poltsikoak lekuz aldatu, barrenak luzatu edo moztu, janzkiak zabaldu edo estutu, sorbaldakoak eta ukondokoak kendu edo ipini...



San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE



AROSZTEGIA-ALTZARIAK

Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



BOLU SUKALDEAK



2000eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu, 22-behea . Bergara . Telefonoa eta faxa : 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA